

## Mondragon Unibertsitateko Biblioteka WorldCaten partaidea

2015/05/27

Joan den apirilaren 15etik aurrera, Mondragon Unibertsitateko Biblioteka munduko datu bibliografikoen plataformarik handienaren parte da, hau da WorldCaten partaidea da.

Mondragon Unibertsitateko bibliotekaren katalogoak dagoeneko aurreneko 100.000 erregistro erantsi ditu.

100 herrialdetako 72.000tik gora biblioteken ahaleginei esker eusten den "Nazioarteko Katalogo Kolektibo" bat da **WorldCat**. Parte hartzen duten liburutegietako funtsetan dauden 300 milioitik gora erregistro biltzen ditu, dokumentu fisiko, elektroniko zein digitalak deskribatzen dituztenak.

Erabiltzaileari dokumentuak non kokatzen diren jakiteko informazioa ematen dio, eta, baita, dokumentu horien erabilgarritasuna.

WorldCat **Mondragon Unibertsitateko Bibliotekaren katalogo publikoa** txertatu dugu, plataforma bakar batetik zuzeneko bilaketak egiteko aukera eskainiz.

Erabilgarria izatea espero dugu.



Mondragon Unibertsitateko  
Biblioteka WorldCaten partaidea